

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Sebastiana Balanzategi Unzueta

*Aramaio, Araba
(1929)*

Aurkibidea



Biografia



Zabola auzoko Txamarga (Garaikoazpi) baserrian jaio zen. Ama etxekoa zen, eta aita Alzaga auzoko Enrikena baserritik etorritakoa. Bederatzi anai-arrebatatik, Sebastianana zen nagusia. Azkoagako eskolan ibili zen sei urtetik hamabira arte, don Lorenzo Martinez maisuarekin. Txamargan lihoa ereiten eta haritzen ezagutu zuen Sebastianak. Hamabi urterekin josten ikasten hasi zen, baserririk baserri jostun lanetan aritzen zen Benita Madinarekin. Gero, Arrasateko “Corte y Confección” eskolan ikasi zuen. Baserrian josten ere egiten zuen, eta udatan Gasteizko “Parador Antonia”n egin zuen lan, ezkondu zen arte. Jerardo Salaberrirekin ezkondu zen kalera. Etxean josten jarraitu zuen eta hiru alaba hazi ditu. Senarrak lehengo “Tejeduria” lantegian egiten zuen lan.

Zintak

ARA-091

- **Proiektua:** Aramaioko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-12-10
- **Iraupena:** 57 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa
- **Transkribatzailea(k):** Oruesagasti, Ainitze

Pasarteak

1. Baserriaren izen ezagunagoa

- **Erref:** ARA-091/001
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:00:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Azkoaga auzoko Zabola auzuneko Garaikoazpi baserrian jaio zen. Baserria Txanberga edo Txamarga izenez ezagunagoa da.</p>

Transkripzioa

- Esango dostazu /esangoztasun/ izena ta apeli duak?
- Sebastiana Balanzategi.
- Bigarrena?
- Unzueta.
- Unzueta. Eta nun eta noiz jaixo ziñan?
- Azkuan (Azkoagan), Zabolán.
- Zabola auzuan ze...
- "El 20 de Enero".
- Baiña Zabolako ze etxetan?
- Garaikoazpi.
- Garaikoazpi?
- Bai, Txanberga esan izan die /izantzi/, baiña Garaikoazpi da.
- Txanberga?
- Bai. Izan bihar euen gure bisabuelue edo ba...
- Zuek, zuek Txanberga esaten xatzue edo Garaikoazpi?
- Oin, oindikon Garaikoazpi gutxik. Txanberga, gehixenak.
- Bale, bale. Orduan, ipiñiko dittugu bixak. Ofiziala, ofiziala Garaikoazpi bada Garaikoazpi [...], baiña parentesi artian...
- Bai, holaxe.
- Txanberga.
- Berbetan hasi gitzen, eta anaiak esan osten "e, oin Txanberga ez don / ezton/ e!"

2. Maisuaren eta abadearen arteko ika-mikak

- **Erref:** ARA-091/004
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:01:45. **Bukatu:** 00:04:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren jarrera
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Azkoaga auzoko eliza aurreko eskolan hasi zen 5-6 urte gaz, Don Lorenzo Martinez valladolitarra maisu zenean. Adinagatik gela bitan banatuta, baina neskatilek eta mutilek elkarrekin ikasten zuten. Eskolak erdaraz jasotzen zituzten, baina eskola ondoan bizi zen abadeari ez zitzaion gustatzen erdaraz hitz egiten entzutea, ez eta neskatilek mutikoekin jolasean ikustea ere. Abadea eta maisua ez omen ziren ondo konpontzen. Maisuak gau-eskolak ere ematen zituen mutilak Arrasateko Eskola Profesionalerako prestatzeko.

3. Aita kartzelaratua

- **Erref:** ARA-091/005
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:04:24. **Bukatu:** 00:05:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Aita Altzaga auzotik etorritakoa zen; eta, gerra hasi zenean, atxilotu egin zuten.</p>

Transkripzioa

- Orduen, zu zu... eskolan hasi ta segidan gerria hasiko zan ez da?
- Bai...
- Hurrengo urtian edo...
- Nik aizta bat daukot "el año treinta y nueve" jaixotakue... Aitte be kartzelara erun nabien, orduen. Auzoko ta herriko, ez dakizu... zeak izaten dienak.
- Bai, seinalauak.
- Bai, bai. Gure, nire aittite egoten zan horreaz abadi horreaz Azkuan asko. Ta zan, eene! Nazionala, ez dakizu? Erreketie.
- Zan?
- Ba... Orta. Ortan... eske abadie be haundixe zan ta Orta. Ta zelan han eoten zien jokuen ta ez dakit zer, ba, harek eta... Gure aittek, barriz, holakoik ez zauken ezebe!
- Kontrakua?
- Bai. Gaiñea, bertan etxekue ez zan /etzan/. Bere semie ez zan /etzan/.
- A, ez dostazu /eztazu/ esan. Aitta nungua zan?
- Aitta, aitta Altzakue (Altzagakoa).

4. Josten ikasten

- **Erref:** ARA-091/008
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:06:14. **Bukatu:** 00:08:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

12-13 urterekin eskolak bukatu eta josten ikasi zuen. Etxerik etxe josten ibiltzen zen emakume batekin hasi, eta gero Arrasaten jantzigintza ikasi zuen. Gerra denboran eskolak etena izan zuen.

5. Jostun maistrak

- **Erref:** ARA-091/009
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:08:11. **Bukatu:** 00:10:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

<p>Altzaga auzoko Benita Madina baserririk baserri josten ibiltzen zen. Leku askotara josteko makina aldean eramaten zuten, karga txandatuta.

Benitarekin urte eta erdi eta Arrasaten sei hilabete eman zituen josten ikasten. Arrasateko akademiako maistra Arrasateko Uribarri auzoko Mendietxebarri baserriko Rosita zen. Aramaioar askok ikasi zuten Rositarekin.</p>

6. Joskintzan eta baserriko lanetan

- **Erref:** ARA-091/011
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:10:42. **Bukatu:** 00:13:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

Arropa asko jositakoa da Sebastiana. Etxean, Garaikoazpi baserrian (Txanbergenian), josten zuen. Joskintzaz aparte etxeko lanetan ere jarduten zuen. Dozena bat ganadu buru eta bizpahiru behor izaten zituzten. Etxean txerri, oilo, untxi eta beste ere edukitzen zuten. Itaurrean egin behar zenean, eskolara joan barik geratzen zen. Geroago, bere alabek ere, eskolatik irteten zutenerako, josteko lan txikiak zain izaten zituzten etxean.

7. Lihoa (linua) ereiten zuten

- **Erref:** ARA-091/014
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:14:21. **Bukatu:** 00:15:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Lihoa (linua) eta ehuleak

Laburpena:

Baserrian artoa ereiten zen garaian lihoa (linua) ere ereiten zuten. Lihoa etxean lantzen zuten, eta ehuntzera Eskoriatzako ehule batengana eramaten zuten. Aramaion ere bazegoen ehulea, baina ez omen zen hain ona. Lihoaren hazia urte batetik besterako gordetzen zuten. Sustrai eta guzti atera eta gero putzuan edukitzen zuten, gainean harriak jarrita.

8. Lihoa (linua) lantzen

- **Erref:** ARA-091/016
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:15:57. **Bukatu:** 00:17:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Lihoa (linua) eta ehuleak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak

Laburpena:

Sustraiak bigundu arte egoten ziren liho (linu) landareak putzuan. Gero liho-mailuarekin jotzen zituzten landareok. Sustraietatik irtendako haria latzagoa zen eta zakuak egiteko erabiltzen zuten. Landarea jo eta gero "karraskia"rekin garbitzen zuten fin-fin utzi arte. Goruan amak eta amamak jarduten zuten.

9. Trangatzea; ehuna

- **Erref:** ARA-091/018
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:17:50. **Bukatu:** 00:20:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Lihoa (linua) eta ehuleak

Laburpena:

Lihoa (linua) trangatzen laguntzera auzoko andreak etortzen ziren. Arratsaldean txokolatea hartzen zuten emakumeok. Baserri gutxitan ereiten zuten lihoa. Trangatu ondoren eskuz leuntzen zen, eta haria egiteko gertu egoten zen. Haria matazan batu eta ehuntzera eramaten zuten Eskoriatzako ehulearengana. Ehunaren bi zabalekoak izaten ziren oherako izarak. Ehuna 70 zm.ko zabalerako biribilkietan etortzen zen.

10. Lihoa (linua) eta artilea

- **Erref:** ARA-091/019
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:20:56. **Bukatu:** 00:22:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- Lanbideak » Antzinako lanbideak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Lihoa (linua) eta ehuleak

Laburpena:

Urte bitik behin ereiten zuten lihoa (linua). Neguan amak eta amamak lihoa eta aititak artilea egiten zuten. Karda eta maratila gogoan ditu Sebastianak. Liho soroak loretan oso politak omen ziren. Ez du gogoratzen garai hartan beste inork lihoa ereiten zuenik.

11. Gerraosteko lapurrak. Ura eta arropa garbiketa

- **Erref:** ARA-091/021
- **Iraupena:** 0:03:19. **Hasi:** 00:23:07. **Bukatu:** 00:26:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Garia entregatzen zenean, aititak "Miñazulo" izeneko zulo batean gordetzen zituen irin zakuak guardia zibilengandik ezkutatzeke, baina norbaitek ostu zion

zakuren bat. Neguan teilatuko urez baliatzen ziren, baina udan errekatik ekarri behar izaten zuten. Etxe ondoan garbitokia izan zuten arte arropa errekan garbitzen zuten. Lixiba egindakoa da Sebastianana.

12. Tejeduria lantegia

- **Erref:** ARA-091/025
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:29:45. **Bukatu:** 00:32:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ekonomia eta industria » Lantegiak » Arabako lantegiak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza

Laburpena:

Gasteizera lanera autobusez joaten zen; Jauregi-ren autobusak astean birritan joaten ziren Gasteizera. 23 urtera arte, ezkondu zen arte, egon zen baserrian. Kalera ezkondu zen. Tejeduria lantegian egiten zuen lan senarrak kotoizko ehunak egiten. Tejeduria-ren azpian tindategia jarri zuten. Mahoia zen gehien ekoizten zuten ehuna.

13. Aita Bilboko kartzelan

- **Erref:** ARA-091/029
- **Iraupena:** 0:03:22. **Hasi:** 00:32:57. **Bukatu:** 00:36:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Gerra hasi zenean, aita atxilo hartu zuten etxetik. Atxiloketa oso gogoan du. Bi gizon aramaioar etorri ziren aitaren bila, eta handik Bilbora eraman zuten. Padre Vilariño jesuitarekin egon omen zen kartzelan. Gorriek eraman zuten aita, karlista zelakoan. Bilbo liberatu zutenean itzuli zen etxera.

Transkripzioa

-Zuk zer rekuerdo dauketzu gerrakue eta gerra ostekue eta...?
-Gerrakue? Neuk txarra! Aitte zelan kartzelan auen, ba, badakitzu...
-Baiña aitta zegatik eruen auien, segidan eruen auien kartzelaa?
-Bai.
-Baiña bera miliziano fan zan edo?
-Ez, ez! Etxetik eruen zauien.
-Norbaittek denunziauta edo?
-Norbaittek, e, kontuek. Badakitzu? Kontuek eruenda edo ez dakit nik zer. Eta bere parientie zala, ni gero enterau nintzen, hemen "al mando" auela. Eta ha etorri zan, etorri zien e, horretxeaz akordetan naz: soluen zebillen, solue lanketan, eta juen zien, nun dabillen eta, juen zien han abillela eta ekarri auien, horretxeaz akordetan naz, gizon bik ekarri auien erdixen, izen bazan lapurre moduen, ez dakitzu? Ekarri auien etxea eta, ba, garbittu ein biher zala, izerdittu in auela eta garbittu apur bat eta, zertarako eta, ba, beraaz juen biher dauela, juen biher dauela. Bueno. Baiña, nora? Eta, hori, ezer esan be ez, e? Nora ta zer ta ezebez. Eta gurien ama be negarrez, eta

amama be bai eta...

-Eta gizonak, bere billa etorri ziranak, militar jantzitta?

-Ez! Geu moduen! Besteik ez. Hemenguek zien, Aramaixokuek zien, gaiñera. Eta eruen zauien, eta hortik gero Bilbora eruen auien. Eta egon zan, ba, kartzelan, ez dakit, oin ez naz akordetan... Eurakin egon zan jesuita bat be bai, jesuita...

-Kartzelan?

-Kartzelan, bai. Eta harek, gure aittek holako letraik ez auken, eta jesuittiorrek eskribirute dedikau euskun, niri bat, liburu bat, "religioso, misas y esto y lo otro", eta nire anai nausixenai beste bat, bi. El padre Vilariño, haretzek zertu utsen. Oso gizon e, gure aittek ez auken ha saltzeko.

-Orduen padre Vilariño jesuittie izen zan aittakin kartzelan?

-Bai.

-Eta jesuittiori ez zan izengo aramaixotarra?

-Ez, ez. Han ezautu zan. Bilbokue edo, ez dakit ba nungue zan.

-Eta zer akusaziñorekin, zergatik e...?

-Militarra zala! Karlistie zala! Eta horreatik erueten auiela.

-A, gorrixek eruen auien?

-Hori da!

-A, joño! Gorrixak karlista moduen akusauta eruen auien!

-Bai, eruen auien, bai!

-Eta zuk esan dozu bera ez auela bere aittarekin konforme.

-Ez.

-Orduen aittitta eruen biherrien aitta eruen auien!

-Aitte eruen!

-Eta Bilbon zenbat denbora egon zan?

-Ba, nik ez dakit. Ba, gerriaz Bilbo liberau arte edo, ez dakit zer. Eta gero etxea etorri zan. Ba, ulie be jausitte ixte, eta, badakitzu, han barruen egoten... Bai.

-Zenbat urte eukan, zure aittori [hartu] auenien?

-Ez dakit zenbat euko zittuen...

14. Aita kartzelan, etxekoak beldurrez

- **Erref:** ARA-091/031
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:37:58. **Bukatu:** 00:40:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Aita kartzelan zegoela, Susanaren ahizpa bat jaio zen. Aita atxilotu zutenetik, etxean beti beldurrez egoten ziren milizianoekin. Labesua gauez egin arren, goizean milizianoak zain egoten ziren. Etxean ez, baina soroan erori zen bonbaren bat. Etxean, kortan edo ganbaran gordetzen ziren.

15. Guardia zibilek esnea doan

- **Erref:** ARA-091/033
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:40:31. **Bukatu:** 00:41:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Polizia
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura

Laburpena:

Gerraostean astean baserritar batek esnea eraman behar izaten zuen guardia zibilen kuartelera. Esne hori doan hartzen zuten guardia zibilek.

16. "Sebillabandaka" jolasean. Erromeriak auzoetan eta plazan

- **Erref:** ARA-091/034
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:41:50. **Bukatu:** 00:44:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Sebillabandaka, pote-poteka, txirikiletan etab. jolasten zuten neska-mutikoek. Udan auzorik auzo ibiltzen ziren jaietako erromerietan. 16 urtetik aurrera plazako erromerietara ere joaten ziren.

17. 'Hijas de María' eta luistarrak

- **Erref:** ARA-091/035
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:44:01. **Bukatu:** 00:45:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak

Laburpena:

<p>Sebastiana Hijas de María kongregazioan egon zen. Don Demetrio eta Don Felipe abadeak gogoratzen ditu. Hijas de María eta San Luistarren kongregazioen estandarte bordatuak jarri zituzten Azkoaga auzoko elizan.</p>

18. Ira batzera urrutiko basoetara

- **Erref:** ARA-091/041
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:51:15. **Bukatu:** 00:53:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserríko lanak
- Baserría » Baserríko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Jarindo eta Etxanbileta-ko basoetara joaten ziren ira batzera. Aita joaten zen seme-alaba batzuekin. Bidean batutako basoko sagarrak erre eta babarrunak egosteko parrilla bat eramaten zuten. Ira igitaiaz ebaki, lehortzen utzi eta gurdiarekin garraiatzen zuten etxera, ira-pilatan metatzeko. Aretxabaletako Marin auzoko baso batera ere joaten ziren iratara.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-12-12

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com